

# Aretxagazeta



**ETA GAINERA...**

**Ze barri?**

GAIA

**Korrika  
gertatzeko lanetan /8**

BERTSO AFARIA

**Xanti Iparragirreri  
omenaldia /9**

LEINTZ GATZAGA

**Labidea eta Turismo  
Bulegoa inauguratu /10**

**LITERATURA  
TOPAKETAK  
KURTZEBARRI  
ESKOLAN**

**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 29**  
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

**DOMEKA, 30**  
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

| OROKORRAK                   |              |
|-----------------------------|--------------|
| Almen .....                 | 943 71 49 07 |
| ARETXAGAZETA .....          | 943 79 86 21 |
| Faxa .....                  | 943 77 18 54 |
| Basotxo .....               | 943 77 09 81 |
| Euskaltegia .....           | 943 79 21 68 |
| Gizarte laguntzailea .....  | 943 71 18 62 |
| Hezibide elkarte .....      | 934 79 31 32 |
| Industrialdea .....         | 943 79 62 80 |
| Institutua .....            | 943 79 79 00 |
| Kirol etxea .....           | 943 71 26 28 |
| Kultura etxea .....         | 943 71 10 27 |
| Kurtzebarri Eskola .....    | 943 79 00 49 |
| Kurtzebarri BHI .....       | 943 79 57 40 |
| Liburutegia .....           | 943 71 18 62 |
| Loramendi EE .....          | 943 77 09 70 |
| Ludoteka .....              | 943 79 05 81 |
| Mankomunitatea .....        | 943 79 30 90 |
| Murruxio ME .....           | 943 79 93 74 |
| Musika Eskola .....         | 943 79 36 50 |
| Osasun etxea .....          | 943 71 19 59 |
| Otalora .....               | 943 71 24 06 |
| Parrokia (bulegoa) .....    | 943 79 18 42 |
| Pausoka Haur Eskola .....   | 943 77 03 77 |
| Postetxea .....             | 943 79 28 31 |
| Santa Rita Ikastetxea ..... | 943 79 17 00 |
| Saretxo .....               | 943 71 26 56 |
| Taxi geltokia .....         | 943 79 22 33 |
| Udal Bulegoak .....         | 943 71 18 62 |
| Udaltzaingoa .....          | 943 71 18 63 |
| Urats Gain .....            | 943 79 99 11 |

**UDALZAINGOA**  
Arrasate .....

**LARRIALDIK**  
SOS Deiak .....

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Zapatutan: 18:30  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN: LARRINO**  
Domeketan: 12:30

**MENDIOLA**  
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

**GELLAO**  
Domeketan: 11:30

**OHARRAK**

**KZGUNEA, ZABALIK**  
Gaur, egubakoitza, zabaldute KZGunea. Markole auzunean dago, eta bere ordutegia honakoa da: 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

**ATZEGIZALE IZATEKO KANPAINA**  
Aratzek, Aretxabaletako atzeratuen elkarteak, Atzegizale izateko kanpaina egingo du etzi, domekan. Informazioa eskuratu gura duenak kalean izango ditu Aratzeko ordezkariak.

**'EGUNKARIA'-KO BATZORDEA**  
Komunikazioaz eta mobilizazioaz arduratzen den *Egunkaria*-ko batzordeko taldea martitzenean, hilak 1, batuko da udaletxe zaharrean, 19:00etan.

**GAUR EGUNGO DANTZA IKASTAROA**  
Udaleko Kirol Zerbitzuak gaur egungo dantzako ikastaroa antolatu du. Apirilaren 5ean hasiko da, eta maiatzaren 31 bitartean zapatuetan izango dira eskolak, 11:00etatik 13:00etara. Ikastaroa dantzan eta koreografian diplomatua den Maite Otaolak emango du. Debagoieneko kirol zerbitzuetako bazkideek 24 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek 27 euro. Izena emateko kirol etxera deitu 943 71 26 28 apirilaren 3a baino lehen.

**LORAMENDIRENAGENDA**

**DIAPOSITIBA EMANALDIA**  
Korrika Kulturalaren barruan, Jon Arretxe idazleak *Sumatra bizikletaz* diapositiba emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

**'BERBETA BERUA' LIBURUA SALGAI**  
Badihardugu elkarteak kaleratu berri duen *Berbeta berua* liburua salgai dago Loramendi EEn. 10 euro kostatzen da.

**ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN**

**Errasti anaiek Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten**



Ibon eta Unai Errasti anaiek amateur mailako Gipuzkoako Pilota Txapelketako finala jokatu zuten 1994ko martxoaren 27an. Segurako Artola eta Etxeberria bikotea izan zuten aurrez aurre. Aurrelaria aurrera eroaten eta atzelaria engainatzen ahalegindu ziren arren, galdu egin zuten.

**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Arrataria"**

Erropan egindako urratua, tarratada.  
—Alanbrian katiu  
*ta arrataria ein jat ipurdixan.*



**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETA  
**Maddi eta Uxue Bengoetxea**  
9an, 12 urte eta 25ean, 9 urte. Zorionak! Etxekoak.




ARETXABALETA  
**Aiora Padilla**  
26an, 17 urte. Zorionak eta urte askotarako, lagunen partetik.



ARETXABALETA  
**Ander Fernández**  
27an, urtebete. Zorionak eta ondo-ondo pasatu, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Ibon Altube**  
28an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Maite Carriet**  
29an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORITZA  
**Nagore Beloki**  
30ean, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Aitor Romero**  
31n, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Miriam Urkia**  
31n. Zorionak eta muxu handi bat, Aretxabaletako lagunen partetik.



ARETXABALETA  
**Goretti Aistui**  
1ean. Zorionak eta muxu handi bat, ARETXAGAZETAko lagunen partetik.



ARETXABALETA  
**Ibon Pz. de Labeaga**  
3an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**'Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna'**

Urtero moduan, apirilaren 2an Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko dugu. IBBY (International Board on Books for Young People) elkarteak antolatzen du, Hans Christian Andersen Danimarkako idazlea jaio zela goratzeko.



**HAUR LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA**


Antonio Paulos, Ana Maria Machado

Elkarte horretako kide den herrialde bati egokitzen zaio egunaren berri ematen duen kartela eta munduko ume guztiei bidaliko zaien mezua asmatzea, eta aurten Brasil ibili da lan horretan. Kartela Antonio Paulos marrazkilaria egin du, eta mezua eta testua Ana Maria Machado idazlearenak dira. Honela dio aurtengo mezuak: *Liburuak: mundua sare liluratu batean.*


JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

**Errekabarren merkataritza etxea.**

Guztia bertan. Guztia Errekabarren kalean.




**MARI KARMEN**  
ZAPATA-KONPONKETAK  
943 79 59 85



**IRUDI**  
ILE APAINDEGIA  
943 79 80 90



**LEINTZ-ROSI**  
MERTZERIA  
943 79 78 63



**ERREKABARREN**  
FRUTATEGIA  
943 79 96 43

**ANA'S**  
jantxidenda

*Iparragirre 4.*  
Aretxabaleta

**Aretz**

**taberna**

Markole, 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA


**ATREBENTZIAEZPADA/ Aspaldixen kaleko eta tabernetako girue asko bajau ei da. Ze pentsetan jatzu?**



**ESTI RAMOS**  
Ikasle




**LUCIA MURILLO**  
Langillie



**JULEN BARANDIARAN**  
Langillie



**MAITE BLANCO**  
Langillie



**IBON GONZÁLEZ**  
Langillie



**ANGEL ZUBILLAGA**  
Langillie

Bai. Jentiek kanpora egitten dau oin. Aste bukaerako giruek behera egin dauela esango neuke. Nik neuk eguakotxetan ez, baiñe zapatueta kanpora fateko ohituriue dauket.

Ez naz sarri ibiltten kalien, baiñe esango neuke baietz. Aste bukaeretan, behintzet, egunez ez da jente askorik ikusten herrixen. Ni neu beaste bukaeretan Gasteizera eta faten naz.

Bai. Jentiek diru larregi dauko, eta kanpora faten da. Ohititurak aldatuz doiaz eta oin jentiek gurago izeten dau aste bukaerie eskietan edo beste edozer egitten kanpuen pasetie.

Bai, duda barik. Uste dot aste bukaeretan kuadrilla bi ibiltten garela tabernetan. Neu herriakue naz eta hamen geraketan naz. Oin modan dau kanpora fatie, Gasteizera, Mondraguera...

Ez dot sarri urteten eta ez dakit behera egin dauenedo ez. Baiñe esango neuke nahiko jente gutxi ibiltten dala tabernetan-eta. Nik neuk herrixen urteten dot beti.

Bai. Neuk ez dot aste bukaerero urteten, baiñe eguerdixetan lehenago baiño jente gutxiago ibiltten dala esango neuke. Oin, gaiñera, eguraldi onakin jentiek kanpora urteten dau.

**TXALOAKETATXISTUAK**



**TXALOAK 'EGUNKARIA'-REN ALDEKO BATZORDEARI** *Euskaldunon Egunkaria*-k behar izan duenean, herriko hainbat lagun gertu egon dira laguntza emateko. Horregatik, gaurko txalo zaparrada horiendako guztiendako da merezimendu osoz. Batzuek harpidetzak egiten, beste batzuek elkartasun eta atxikimenduak lortzen... gogotsu lan egiteko batzordea eratu dute. /A.L.

**ETABARRUAN...**

|  |   |   |
|--|---|---|
| LITERATURA /04   | EUSKARA /05   | KIROLAK /06   |
| <b>Literatura Topaketak</b>  | <b>Dakixenak einddaixela</b>  | <b>Karate erakustaldia</b>  |
| Gaur hasi eta apirilaren 8a bitartean Literatura Topaketak egingo dituzte Kurtzebarri Eskolan. | Loramendi EEK <i>Dakixenak einddaixela</i> berripapera banatu die DBHko ikasleei. | Domekan, martxoaren 23an, karate erakustaldia egin zuten herriko 28 karatekak kirol etxean. |

**ASTEKODATUA**

**238**

**EURO LORTU ZITUZTEN KORRIKAKO SALTOKIAN**

Martxoaren 22an jarri zuten salgai Korrika 13ko materiala. Kamisetak, txapelak, poltsak eta bestelako materiala saldu zuten. Hala, Korrika 13ren alde 238,20 euro batzea lortu zuten.

**BESTEKEESANA**

**“** Iparraldeko herrialde aberatsetan bizi garenontzat, esperientzia gogorra eta alde berean ahaztu ezinezkoa da, zer jan ahal izango ote duten “asmatzea” eguneroko kezkarik nagusia daukaten milaka pertsona ikustea. Hedabideek maiz “hunkitzen” gaituzte gosez bizi diren (edo hiltzen diren!) haurren irudiekin; baina, egia esan, ohituraren geruza iragazgaitza sendoak oso ondo babesten gaitu, eta dagoeneko, imajina “hunkigarria” horiek gu mugiarazteko daukaten ahalmena erabat galdutute.

Beren haurrei jateko zer ematerik ez daukaten “Afabet”-eko errefuxiatuen kanpalekuan ama haiekin buruz buru egoteak, ordea, bihotzik gogorrena ere betiko eta erabat iraultzen du.

**JON MOLINA**  
‘Arantzazu’/2003ko martxoa

**HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano**



*Mendiolatik begira: begiak ixtea hobe!*

**P**untuan, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak bultzatutako Lurralde Zatikoa Plana burutuko balitz, etxetxoak jositako izango ditugu inguruko auzo eta goialdeak. Ezaguna duzue jadanik proiektu ikaragarri hori ezta? Bai, etxetxo politena eta urtegi berriarena ez aspertzeko. Beti bezala, hiritar eredu bizimodurik egokiena balitz bezala saltzera datoz; eta hori gutxi balitz, nekazal munduarekin bateragarria dela esaten ez digute ba? Bai, klaro, baserriarrok, herriaren ondare historiko moduan, zoologikoetako animalien pare zainduko gaituzte.

Ez dut uste bateragarritasun handiegirik dagoenik. Ez, dakitenek hala diotelako, ez, baizik eta arrazoi simple batengatik: nekazaritza eta abeltzaintzarako lurretan etxeak edota bestelako eraikinak altxatuz gero, soberan daudelako animalia, landare

eta barazkiak. Edo bata edo bestea; biak ez behintzat. Zoritxarrez, iritziak egia baino indar handiagoa du eta horrexek galtzen gaitu. Eskaria eta eskaintzaren sarean kateatuta bizi gara. Proiektuaren egileak badaki sekulako diru iturria dela; azkenaldian modan baitago hiritik aparteko txalet eta etxetxo “modernoen” kontu hori. Dirua dagoenez non xahutu jarri behar da. Kosta ala kosta. Orainoz, eta poztekoa delakoan nago, nolabaiteko kontrako postura nabari da udaletako ordezkarien partetik, nahiz eta, alegazio epeak bertantxe egonda, gauzatuko denaren beldur izan.

Txanponak badu beste aldea hala ere. Alde positibo edo datekeena. Txostenean izendatzen diren lur eremuen jabeek, beste errentagarritasunik ezean, salneurri on baten truke lurrak saltzeko aukera (ona) dute eta. Hori norberaren esku dago.

**“Bai, klaro, baserriarrok, herriaren ondare historiko moduan, zoologikoetako animalien pare zainduko gaituzte”**



M. J. Aretxaga

## Korrika badator!

Azkenean bai heldu da KZGunea zabaltzeko ordua. Gaur bertan inauguratu dute, eta begirale lanetan Montse Velasco ibiliko da. Beldur apur batekin baina han izango naiz neu ere, ordua da Internet berba hori zer demontre den jakiteko! Munduan zehar nabigatzen hasiko naiz, ez dakit ondo zer esan gura duen horrek baina halaxe esaten dute denek, eta neuk ere ez dut gai horretan atzean gelditu gura.

Beste lagun bat ere aurkeztu behar dizuet, **Ricardo Briñas**, hain zuzen ere. Eta zein da Ricardo hau? Herriko udaltzain berria, Jose Nuñez udaltzaina gaixorik dago aspaldian, eta bere postua beteko du.

Eta ahaztu aurretik, oraindik eguntxo batzuk gelditzen diren arren, aurtengo Korrika ekitaldia aipatu beharra daukat. Apirilaren 7an helduko da gure herrira, baina datorren astean txoko honetan idazterik izango ez dudanez, oraingoan aurreratzera noa. Orain urte bi goizaldean pasatu zen, baina aurtengo ordu egokiagoan dator, 18:10 inguruan. Hortaz, aurtengoan ez dago aitzakiarik.

Hurrengo alean ez nauzue txoko honetan izango, hauteskundeak badatoz eta... Badakit ni gurago izango nauzuela baina... Bi aste barru arte.

LITERATURA/ Iñaki Mendiguren idazleak 'Harry Potter'-en gaineko solasaldia gidatuko du

## Komikia dute ardatz Kurtzebarri Eskolako Literatura Topaketek

MIRARI ALTUBE

Komikia landuko dute Kurtzebarri Eskolan antolatu dituzten Literatura Topaketetan. Gaur hasi eta datorren aste osoan izango dituzte literaturarekin lotutako ekintzak: XII. Irakurketa Maratoia, komiki lantegia eta *Harry Potter*-en gaineko solasaldia, besteak beste.

Literatura Topaketak antolatu dituzte Kurtzebarri Eskolan. *Ipurbeltz* euskal komikiak aurtengo 25 urte beteko dituela-eta, komikia hartu dute lantzeko gai.

### IDAZLEAK ETA KOMIKIGILEAK

Martxoaren 28a eta apirilaren 8a bitartean ekitaldi ugari egingo dituzte Kurtzebarri. Gaur goizean ipuin kontaketa izan dute eta datorren astean *Harry Potter*-en gaineko solasaldia eta komiki lantegia izango dituzte, besteak beste. Idazle eta komikigile ezagunak hurreratuko dira Aretxabaletara: Isabel Millet eta Iñaki Mendiguren idazleak, Haritz Iñurritegi, Kaiet Bengoetxea eta Iñaki Artetxe komikigileak, Isabel Agirresarobe idazle-illustratzailea eta Koldo Amestoi ipuin kontalaria.

### XII. IRAKURKETA MARATOIA

Urtero moduan, aurtengo ere Irakurketa Maratoia egingo dute Lite-



Irakurketa Maratoia izango da Literatura Topaketeko ekitaldi garrantzitsuetakoa.

ratura Topaketan barruan. Apirilaren 3an, egunean, izango da, eskolako areto nagusian, eta aretxabaletar guztiak parte hartzera animatu gura dituzte eskolako

ordezkariak. Ikusgai egongo dira, gainera, ikasleen lanak, ipuinak, albumak, aldizkariak, eleberririk... Egun berezi hori bukatzeko, Eriz magoa izango dute 18:00etan.

## LABUR

### Apirilaren 7an 18:00ak inguruan pasatuko da Korrika

Apirilaren 7an (astelehena) pasatuko da Korrika 13 Aretxabaletatik. 18:10 inguruan sartuko da Eskoriatzatik, eta Arrasaterantz joango da. Kilo metroak oraindik salgai daude, eta erosi gura duenak AEKra egin behar du dei: 943 77 03 69.

Apirilaren 7an, bestalde, Korrika Txikia egingo dute ikastetxeetako umeek. 15:15ean elkartuko dira guztiak, eta Korrika egin ostean, buruhandiak, musika eta Leizarra Musika Eskolako perkusio taldearen emanaldia izango dira.

### Etkez etxe banatuko dute idatzien gaineko liburuxka

Debagoieneko udaletako euskaraz zerbitzuek *Idatziaik: gonbitak, zorion agurrak, oharrrak...* bilduma kaleratu berri dute. Eguneroko egoeretan idatziaik egiteko argibideak ematen ditu bildumak. Banaketa egunotan egingo dute, etxez etxe, eta auzoetako bizilagunei postaz bidaliko dizkiete. Hala ere, norbaitek jaso ez eta interesa izango balu, udaletxetik pasa dadila, eta inolako arazo barik emango diote.



### Aretxabaletako Aralar taldearen aurkezpena

Joan den martitzenean aurkeztu zuten Aretxabaletako Aralar taldea. Xabier Sarasua ibili zen aurkezpen lanetan. Haren esanetan, indar aber tzaleak eta, batez ere, ezker tiarrak elkartu egin behar dira herriaren alde lan egiteko. 20 lagun inguru batu ziren, eta proposamen ugari jaso zituzten antolatzaileek hurreratu zirenen artetik. /M.A.

## LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea, 1  
Tel.: 943 77 13 79  
Aretxabaleta

## Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAleta



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 943 79 79 79  
ARETXABAleta

EUSKARA/ DBHko ikasleen artean banatuko dute hilean behin

# 'Dakixenak eindraixela' berripapera eskoletan dago

MIRARI ALTUBE

Bertako berbeta bultzatzeko ekimenari jarri du abian Loramendi Euskara Elkarteak. *Dakixenak eindraixela* berripapera banatuko die hilean behin DBHko ikasleei. Kontu kuriosoak, agenda eta lehiaketa izango ditu, besteak beste, berripaperak.


*Dakixenak eindraixela* berripapera banatu du asteon Loramendi EEK DBHko ikasleen artean. Aretxabaletako berbeta bultzatzea du helburu ekimenak.

### BERTAKO BERBETA BULTZATZEKO

Arrasateko AED elkarteak kale-ratzen duen berripapera oinarri hartuta jarri du abian ekimena Loramendi EEK. Kurtzebarri Eskolako DBHko ikasleendako izango da, Almen Ikastetxekoei banatzen AED arduratzen da-eta. Hilean behin banatuko dute Josu Zaloña eta Larraitz Arando Loramendi EEKo dinamizatzaileek, eta kontu kuriosoak, agenda eta lehiaketa jasoko ditu, besteak beste, berripaperak. "Aretxabaletako berbeta bultzatu gura dugu ekimen horrekin. Berba egiterakoan hemengo berbeta erabiltzen dugu guztiok, baina idazteko orduan ez, eta sarritan ez zaigu batere samurra iruditzen", dio Josu Zaloñak.

### DISKO KONPAKTUAK SARITUENDAKO

Asteon banatu duten lehenengo berripaper horrek Korrikaren



Bertako berbeta bultzatu gura du Loramendi EEK abian jarritako ekimenak.

gaineneko historia dakar. Horrez gain, Loramendi EEK apirilera-ko antolatutako ekitaldien berri ematen du, eta galdera bat ere badakar. Galdera erantzuten dutenen artean zozketa egingo dute, eta irabazleari disko konpaktua emango diote: "Ez dira izango

galdera gaitzak; hortaz, ikasle ugari parte hartzea espero dugu", dio Larraitzek.

Geure berbeta bultzatu gura duten hainbat ekimen jarri dira abian azkenaldian. Badihardugu elkarteak, esaterako, *Berbeta berua* liburua kaleratu berri du.

## TXUTXUMUTXUA



### Udalak eta umeek, omenaldia pailazoei

Zapatuan, Takolo eta Porrotx egon ziren kirol etxean, umeen gozamenerako; Pirritzek ez zuen etortzerik izan, gaixorik zego-elako. 15 urteko ibilbidea batzen duen *Katxiporreta* ikuskizuna eskaini zuten. Ezustekorik handiena, oster, pailazoei eurek hartu zuten. Izan ere, 15 urte bete dituztela-eta omenaldia egin zieten Udalak eta umeek. Lehenengo bertsoa kantatu zieten eta gero alkateak, kultura zinegotziak eta teknikariak eta Loramendi EEkoek opariak eman zizkieten. /M.A.

## LABUR

### Atzegizale izateko kanpaina egingo du Aratz Elkarteak domekan Aretxabaletako kaleetan

*Atzegizalea zara eta oraindik ez zara konturatu?* Hori da Atzegi elkartearen aurtengo kanpainaren leloa. Hori dela eta, Aratzek, Aretxabaletako atzeratuena aldeko elkarteak, Atzegizale iza-

teko kanpaina egingo du etzi, domeka. Atzegizale izatea zer den jakin gura baduzu, kalean izango dituzu domekan Aratzeko kideak zalantza guztiak argitu eta argibideak emateko.

**JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA**

**Aretxagazeta**



**Hirusta**  
jatetxea

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA



**Matikua**  
jatetxea

Azatza auzoa  
ARETXABALETA  
943 79 16 68

**IOSU HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte kalea  
ARETXABALETA  
943 77 03 08

**J.J. IRURE**  
ITURBANTZA

URA  
GASA  
KALEFAKZIOA


MITARTE, 15  
ARETXABALETA

943 793 187



**Taberna Berri**  
jatetxea

Durana, 26  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 20 67



**LURRINDEGIA**  
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59  
ARETXABALETA

**Jou Diaz**



**Harakina**

Loramendi, 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

**BASABE**  
jatetxea

Basabe bidea z/g  
Tel: 943 79 91 84  
Aretxabaleta

## FOTOKIROLA



## Erakustaldi bikaina egin zuten herriko karate taldeko lagunek

Aretxabaletako karate taldea 1998an sortu zuten. Gaur egun, 28 lagun dabilta karatea egiten eta horiek, hain justu, egin zuten joan den domekan, hilaren 23an, erakustaldia kirol etxean. Ikuskitzuna 11:00etan hasi zuten, makilekin egindako beroketa saioarekin. Horren ondoren, *katak* (karate mugimenduak) eta *kumite* (borroka saioak) ariketak egin zituzten. Azkenik, txikiendako gozagarri moduan, hainbat material bigunen apurketa saioak egin zituzten. Erakustaldiak karateka gazteek gurasoei orain arte ikasitakoa erakusteko balio izaten du. Edozelan ere, oraindik trebakuntza handia falta zaie, eta entrenamenduak egiten jarraituko dute. Hala, maiatzeko azken aste bukaeran Espejon (Araba) izango dira, aire zabaleko entrenamenduak egiten. /A.L.

## FUTBOLA

## Preferente mailako UDA taldea nagusi izan zen Zarautzen aurka jokaturako partiduan

Preferente mailako UDA taldeak erraz irabazi zion joan den domekan, hilaren 23an, Zarautz taldeari (2-1). Dagoeneko geroago eta gutxiago falta da liga amaitzeko eta Bittor Muxikak zuzentzen duen taldeak maila ona erakutsi gura du. Zortzigarren postuan dago ligan, 42 punturekin. Hurrengo partidua oraingo domekan, hilaren 30ean, jokatu du Mundarro taldearen aurka, etxean.

## FUTBOLA

## Berdinketarekin hasi du erregionaleko bigarren mailako UDA taldeak igoera fasea

Erregionaleko bigarren mailako UDAk ez du gura bezain ondo hasi igoera fasea. Dumboaren aurka jokaturako partiduan berdinketa besterik ez zuten lortu Nedzaden mutilek. Martin Garai taldeko ordezkariaren esanetan, partidu eskasa jokatzear gain zorte txarra ere izan zuten. Igoera faseko hurrengo partidua bihar, zapatua, jokatu dute Union Txikiren aurka, Ibarra futbolzelaietan.

## PARTIDUAK

## FUTBOLA

## UDA-Mundarro

Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

## UDA-Union txiki

Big. maila. erreg. Igoera fasea.

Zapatua. 15:30. Ibarra.

## PILOTA

## Tolosa-Aretxabaleta

Gazteak.

Zapatua. Tolosa.

## EMAITZAK

## FUTBOLA

## Zarautz 1 UDA 2

Preferentea.

## Eibar 1 UDA 1

Gazteak. Igoera fasea.

## Dumboa 1 UDA 1

Big. maila. erreg. Igoera fasea.

## UDA 1 Santo Tomas 3

Gazteak. Kopa.

## UDA (c) 5 Eibartarrak 0

Lehenengo mailako kadeteak.

## UDA (b) 5 Eibartarrak 0

Bigarren mailako kadeteak.

## PILOTA

## Debarroko Txapelketa

Aretxab. 14 Eskoriatza 22

Gazteak.

Antzuola 22 Aretxab. 10

Nagusiak.

Aretxab. 22 Eskoriatza 14

Nagusiak.



## PUBLICITATE SAILA

Antonio Arguero Navarro

Diseinu Grafikoa, Infografia, 3D  
Logotipoak, Spot Sortzaileak ...

MARIA JESUS

ARGAZKIGINTZA ESTUDIOA

EZTEIAK, JAUNARTZEAK, MODAZKO "BOOK"-AK, PUBLICITATEKO ARGAZKIAK  
ZAHARBERRITZEAK, INDUSTRIAKO ARGAZKIAK, NATURA HILAK  
ARGAZKI DIGITALAK, GIDABAIMENERAKO ARGAZKIAK ...  
DENA ARGAZKI PROFESIONALEAN



Sustapenak eta deskontuak jaunartzetan eta ezkontzetan

FAGOR SISTEMAK, BELL PUBLICITATEA, HURBIL, GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK, IZOTZ TABERNA, IRUDI ILEPAINDEGIA...  
ASKOK DAGOENEO JARRI DUTE KONFIANTZA GUGAN, ETA ZU, ZEREN ZAIN ZAUDE?

LASTER ZUEKIN LOKAL BERRI BATEN

ARABA IBILBIDEA 27 1-D  
943 771255 - 656 732463

ARETXABALETA (GIPUZKOA)  
shibat@wanadoo.es

Egunkaria aurrera!

ARETXABALETARRAKMUNDUAN

JUANJO PÉREZ


36 URTE / ITZULTZAILEA / GETARIA (GIPUZKOA)

“Bizitza soziala egiteko gustura etorriko nintzateke Aretxabaletara”

MIRARI ALTUBE

**H**amaika lan izan ditu, eta beste horrenbeste lekutan bizi izan da. 1987an alde egin zuen Aretxabaletatik, eta geroztik Euskal Herriko bazter ugari ezagutu ditu: “Lehenengo Barrikan urte bi egin nituen, gero Aretxabaletara bueltatu nintzen, eta Elkarrin sartu nintzen. Elkarrin nengoela, Tolosan, Ibarra, Altzon, Bilbon, Gatican, Zarautzen eta Muruetan bizi izan nintzen, eta orain Getarian nago”. Azken bost urteak egin ditu Getarian, eta erroldatu ere egin da lehenengo aldiz: “Orain arte, nahiz eta kanpoan bizi, beti bueltatzen nintzen herrira. Bozkatu ere bertan egiten nuen, baina orain, umea dela-eta, Getarian finkatu dut bizilekua”. Bikotekideak eraman du Getariara, eta oso gustura bizi da: “Aretxabaletatik alde egitekotan herri txikiago batera joateko izan behar zuen, eta hala izan da”.

Bizilekuak bezala, lanbideak ere hainbat izan ditu Juanjok. Orain itzultzailea da, aldatuko duela dioen arren, eta



etxean egiten du lan. “Muti-koak oso adin polita dauka, 3 urte egiteko, eta etxean egonda izugarri nabil disfrutatzen”. Aretxabaletara hamabostean behin etortzen saiatzen den arren, ez dela samurra

“Herri giroa sumatzen dut faltan; mila saltsatan sartuta egon naiz beti”

dio: “Herri giroa sumatzen dut faltan. 25 urte nituenean mila saltsatan sartuta egon nintzen: Murruxo, Amilotx, Beinke... Oroitzapen polita daukat. Getarian, oster, umeak betetzen dit denbora libre”. Aretxabaletara etortzeko gogoz egoten da, baina Getarian ere gustura dagoela esan digu: “Bizitza soziala egiteko hona etorriko nintzateke. Herriko politikan sartu... Lana samurrago topatuko nuke. Edozelan ere, umea hazteko gurago dut Getaria”.

HURRETIK



Mertxe Alonso

Atsedean cyberkafe tabernakue

Aramaioarra da, baiñe Garagartzan bizi da. Arrasaten tabernie euketa oin dala hillebete Aretxabaletan ordenadore bi daukon kafetegixe zabaldu dau.

**Ze da cyberkafe bat?**

Ordenadoreiek dituen kafetegixe, etxien ordenadoreerik ez daukonak Interneten ibiltzeko edo lantxuek egiteko.

**Zergaittik ez betiko kafetegixe?**

Aukera haundixagie emuten dauelako.

**Zelako jentie etorten da?**

Umiek, gaztiek, nagusiek... Danetik. Nagusiek harrittute itxi naue.

**Gogoko dozu Internet?**

Atentziñue emuten dust, eta ondo ibiltten jakin gureko neuke, baiñe ez dot ikastarorik egiteko astirik euki. Bilddurre be emuten dust, lotute geratu leikela esaten daue-eta.

**Atsedean-leku lasaixe da?**

Bai. Emakumiek eta umiek egoten die sarri, eta lasai-lasai egoteko lekue da.

**Ze dozu gurago, txateau ala lagunekin zeozter hartu?**

Lagunekin egon. Aurrez aurre berba egittie gustetan jat.

**Webgune bat errekomentaiko zeuke?**

Biajien doienandako aukera asko dauz. Nora zoiezen ikusi be egin leike erretuetan.

**Nagusi batendako lan egin ala zeu nagusi, ze hobeto?**

Bixek probau ditut, eta norbera nagusi izetiek beste gauzatxo bat dauko. Baiñe beste batendako lan egittiek buruko-min txikixagiek emuten ditte.

**Ze biher da kafe ona atarateko?**

Makiñie ona izetie, baiñe norberan eskuek be asko egitten daue.

**Gerrien kontrako grebarik egingo zeuke?**

Bai, duda barik.

M. A.

NIREBIDAIAHURA / Puri Beltran de Heredia

Leon (Espainia) / 2003ko otsaila

**A**ste bukaera askotan joaten da Puri senarrarekin batera paraje berriak ezagutzera. Euskal Herria eta Espainia artean ibiltzen dira gehienetan, eta otsailean, hain justu, Leon inguruan ibili ziren. “Oso polita da Leon, bai hiriburua, bai probintziako herri txikiak, eta hainbat eratako ibilbideak egin daitezke”, dio Purik. Erromatarren garaiko hainbat aztarna dauzka Leon hiriak, eta elizak, monasterioak, plazak eta zubi esanguratsuak ditu, eta izugarritzko katedrala: “Benetan ikusgarria da katedrala, baina San Isidoro basiliza, Renuevako San Pedro eta San Juanen eliza, Sortzez Garbiaren Monasterioa... ez dira atzean geratzen. Hamaika eraikin, plaza eta zubi daude ikusteko, oso politak”.

Probintziak ere hamaika aukera eskaintzen dizkio bidaiariari: “Guk Esla erreka albotik Riaño herriraino dagoen ibilbidea egin genuen. Riaño herria berria da; izan ere, orain dela urte batzuk urtegia eraiki eta urpean utzi zuten beste zortzi herrirekin batera”. Mendira joan gura duenak aukera ugari ditu: Riaño dago Picos de Europarako sarrera, Erdiko Mendilerroan txoko politak aurki daitezke: urjasiak, izugarritzko haitzak... “Mendi inguruan dauden herri txikiak xarmagarriak dira, beste garai batekoak dirudite”, dio Purik. El Bierzo zonako herri gehienek daukate zer edo zer ikusteko: Carracedon Santa Mariaren Monasterioa, Compludok Erdi Aroko errementeria, eta Corullon-ek eliza erromanikoa, besteak beste. Las Medulas izeneko parajeak atentzioa ematen du, buztinezko mendi gorri osatuta dagoelako. “Horiez gain, Astorga, Ponferrada eta beste horrenbeste daude ikusteko. Gainera, herri guztietan jaten da ondo. Cocido Maragato delakoa probatzeko aukera dago Leonen”.

M. A.



Erdi Aroko errementeria dago ikusgai Leongo Compludo herrian.



“Mendi inguruan dauden herriak oso politak dira”

“Leonen ‘Cocido Maragato’ delakoa jan genuen”



OPEL COMBO TOUR  
Lider berria

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA  
943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20

Orain %16a aurrez dezakezu  
Agila, Corsa eta Astra Diesel eta Gasolinan



# Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko martxoaren 28a / 118. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Korrika 13 gertatzeko lanetan dabilta herritarrak

AMAGOIA LASAGABASTER

**Euskararen aldeko Korrika ekitaldia egiten den bakoitzean herritarrak gertu izaten dira edozertan laguntzeko. Hala, aurten ere Korrikako ekitaldiak antolatzeko batzordea osatu dute. Taldean herriko hainbat elkarte eta eskolotako ordezkariak dabilta lanean.**

Otsailaren 13an egin zuen Korrika 13ko batzordeak lehenengo batzarra. Eta ordutik hona beste bi egin dituzte. Batzar horietan honako elkarte, talde eta eskolek hartu dute parte: Eskoriatzako Udalak, Gazte Asanbladak, Amuska emakume taldeak, Erretiratuena Elkarteak, Museo Eskolak, Kontzejupe Herri Ekimenak, Euskaltegiak, Jose Arana Ikastolak, Luis Ezeiza Eskolak, EHK eta EAK. Horiek guztiek gertatuko dute Korrika 13 Eskoriatzan, Axtroki Euskara Elkarteak koordinatuta.

### ZORTZI KILOMETRO

Korrika 13 ekitalditik zortzi kilometro egokitu zaizkio Eskoriatzari. Leintz Gatzagatik etorriko dira lasterkariak, eta Eskoriatza-

tik pasatu ondoren Aretxabaletarantz egingo dute. Hori apirilaren 7an (astelehena) izango da. Dena espero moduan irteten bada, arratsaldean pasatuko da Korrika herritik, 17:30ak aldera.

Dagoeneko ia kilometro guztiak daude salduta. Erosleak, ohikoa denez, elkarrekin eta ikastetxeak izan dira. Kilometro bako-

tzari 300 euroko salneurria jarri diote AEK-ko arduradunek. Dirua batzeko, baina, ekintza gehiago egin dituzte herrian. Hala, esate baterako, joan den domekan, hilaren 23an, eranskailuak jartzen ibili ziren hainbat ikastetxetako ikasleak.

Korrikako ekitaldietan gazte-txoek parte-hartze nabarmena izaten dute. Herri askotan Korrika Txikia izeneko lasterketa antolatzen dute. Eskoriatzan ere hala egin izan dute orain arte, baina aurten batzordekideek bestelako planak dituzte. Oraindik zehazteko dagoen arren, Korrika ofizialaren tarte bat gaztetxoendako gorde gura dute.

### KORRIKAKO SALTOKIA

Korrika 13 heldu aurretik beste batzar batzuk egingo dituzte batzordekideek. Izan ere, oraindik hainbat ekitaldi daude antolatzeko. Apirilaren 5ean, esaterako, Gazte Asanbladak Antimilitarista Eguna ospatuko du, eta egun horretan bertan jarri gura dute Korrikako materiala saltzeko saltokia. Horren guztiaren gainean apirilaren 1ean egingo duten batzarrean egingo dute berba.

*Korrika 13  
ekitalditik  
zortzi kilometro  
egokitu zaizkio  
Eskoriatzari*

*Korrika ofizialeko  
tarte bat  
gaztetxoendako  
gorde gura dute  
batzordekideek*

MARI KARMEN ARRIETA/EUSKARA TEKNIKARIA

*“Herritarrak hasi dira eskatzen, hori pozgarria da”*

AINZANE GARDOKI

Joan den urtean, uda partean, hasi ziren ibarreko euskara teknikariak lanetan batzuk elkarrekin bultzatu behar zituztela eta lanean. Orain argitaratu berri dute *Idatziak* liburuxka izan da lanaren lehenengo emaitza. Aukera politikak eskaintzen ditu liburuxkak.

### Esaguzu zertaz den kaleratu berri duzun liburuxka?

Sarritan zenbait gorabehera adierazteko idatzira jo behar izaten dugu, eta euskarak beldurdu egiten gaitu. Egoera horiek modu errazean eta euskaraz adierazteko ereduak jaso ditugu. Gure asmoa liburu erabilgarria eta erabilezkoa egitea izan da.

### Zer eskaintzen dio herritarri *Idatziak* liburuxkak?

Esan dudana moduan, tresna erabilgarria da. Esku artean hartu eta samur aurkituko ditugu idatzi gura ditugun horiek. Batez ere, idatzi eta egoera bereziak jasotzen dira: ezkontza-gonbidapenak; urtebetetzeetako zorion agurrak; atariko auzokideei aurkezteko idatzi ereduak; batzar deiak egiteko ereduak; eta beste asko.



### Eskoriatzarron artean banatuko da *Idatziak*?

10.600 ale inguru kaleratu ditugu. Eskoriatzarrondako 800 ale ditugu. Gure asmoa da liburuxka euskalgintzan dabiltzanean banatzea; hau da, ikastetxeetako langileei, Axtrokiko bazkideei eta Udaleko langileei eta zinegotziei, besteak beste. Baina horiez gain, interesa duen edonork eskatu ahal izango du *Idatziak* liburuxka kultura etxean. Dagoeneko eskoriatzarrak hasi dira eskatzen, eta hori pozgarria da.



### Lurrari eusteko eustarria

Otsaileko azken astean egingo dako euri-jasek lur mugimenduak egin zituzten Eskoriatzan. Saihesbidean, Gasteizerako noranzkoan tunela pasatuaz bat, Foru Aldundiko langileek 150 kamioikada lur atera dituzte aste hauetan; guztira, 3.750 tona: “Oso lur bigun eta mugikorra denez, eustarri sendoa egiten gabiltza, hori egin ezean arazo ez da guztiz konponduko-eta”, esan digu lanak egiten dabilen langileetako batek. Milaka tona harririkin egiten dabilta eustarria, eta lanak datozen egunotan amaituko dituztela esan digute.

### LABUR

### Debarroko Pilota Txapelketan derbia jokatu dute

Eskoriatzako eta Aretxabaletako pilotariak elkarren aurka jokatu zuten joan den martitzenean Debarroko Pilota Txapelketaren barruan. Gazteen artean, Xpe eta Abasolo eskoriatzarrek 22-14 irabazi zieten Altube eta Kortabarriri. Nagusien mailan, berriz, Errasti anaiek 22-14 irabazi zieten Gracia eta Errarte eskoriatzarrei. Ekainean jokatu da Elgoibarren txapelketako finala. Eskoriatzarren entrenatzaile Joseba Iñurategik denboraldi ona egiten dabilzala esan digu.



## TELEFONO JAKINGARRIAK

| ESKORIATZA                |              |
|---------------------------|--------------|
| Udaltzea                  | 943 71 44 07 |
| Udal bulegoak             | 943 71 45 32 |
| Udaltzaingoa              | 943 71 44 07 |
| Euskaltegia               | 943 79 21 68 |
| Kultura etxea             | 943 71 46 88 |
| Gizarte laguntzailea      | 943 71 31 36 |
| Kirol etxea               | 943 71 53 28 |
| Liburutegia               | 943 71 31 35 |
| Luis Eceiza               | 943 71 53 56 |
| Jose Arana Almen Ikastola | 943 71 44 86 |
| Almen                     | 943 71 49 07 |
| Museo Eskola              | 943 71 54 53 |
| Axtroki                   | 943 71 40 77 |
| HUHEZI                    | 943 71 41 57 |
| Osakidetza                | 943 71 44 52 |
| Telesko                   | 943 71 49 17 |
| Taxiak                    | 943 71 40 59 |

| BESTELAKOAK                   |              |
|-------------------------------|--------------|
| Eskualde ospitalea (Arrasate) | 943 00 53 00 |
| Gurutze Gorria (Bergara)      | 943 76 55 76 |
| Ertzaintza (Arrasate)         | 943 79 71 99 |
| Suhiltzaileak (Oñati)         | 943 79 28 00 |
| Renfe (Zumarraga)             | 943 72 15 15 |
| Renfe (Gasteiz)               | 945 23 20 30 |
| PESA (Arrasate)               | 902 10 12 10 |
| Larrialdiak (Arrasate)        | 943 77 10 43 |
| SOS Deiak                     | 112          |

## OHARRAK

### HELDUENDAKO IPUIN KONTAKETA

Gaur, egubakoitza, Jacquelin de Barros uruguaiarrak helduendako ipuinak kontatuko ditu HUHEZIKo Fakultateko areto nagusian, 22:30ean.

### ALDAIPE ELKARTEAREN BATZAR OROKORRA

Bihar, zapatua, Aldaipe elkarteko kideek batzar orokorra egingo dute kultura etxean, 16:00etan.

### UDALEKUETARAKO BEGIRALEAK

Uztaileko udalekuetan begirale izan gura duenak oraindik badauka izena emateko aukera.

## AXTROKIRENAGENDA

### KORRIKA 13: BATZARRA

Datorren apirilaren leian batzarra egingo dute Korrika 13 batzordeko kideek Euskal Txokoan, 18:00etan. Eta apirilaren 5ean Korrikako produktuak jarriko dituzte salgai.

## BERTSO AFARIA

# Xanti Iparragirreren omenez bertso afaria egingo dute gaztetxean

AINTZANE GARDOKI

Joan den asteko alean Xanti Iparragirri omenaldia egingo diotela esan genuen, baina, lehenengo eta behin, esandako batzuk zuzenduko ditugu: antolatzaileek esan ziguten Maialen Lujanbio, Sustrai Colina eta Xabier Silveira izango zirela bertso afarian, baina arazoren bat egon da, eta, hala, Xabier Silveira, Harkaitz Estibalez eta oraindik zehazteko dagoen hirugarren bertsolari bat ibiliko dira herriko gaztetxean bertsoan.

Xanti Iparragirri 22 urteren ondoren herrira itzuli zenean omenaldi beroa egin zioten herritarrek: "Izan ere, orduetik dator Xantiren omenez bertso afaria egiteko ideia. Bertso gintzan eta euskararen alde lan izugarri handia egingo da Xanti, eta herritarrok merezi duen omenalditxo egin gura diogu; eta oraingoa, gainera, bertsoan", esan digu Kontzejupe herri plataformako kide Lore Díaz de Gereñuk.

*"Bertsogintzan eta euskararen alde lan izugarri handia egingo da Xanti"*

Kontzejupe herri plataformak antolatutako omenaldia trikitioarekin hasiko da. 20:00etan Herriko Plazan elkartuko dira omenaldian parte hartuko duten herritarrek; gero, 21:30ean bertso afaria egingo dute gaztetxean. Plataformako kideek prestatuko dute afaria gaztetxean bertan. Entsalada, txuleta eta postrea izango dituzte afaltzeko. Bertso afarira joateko txartelak salgai daude ohiko tabernetan eta Adeli paper dandan. Omenaldian parte hartzera gonbidatu gura ditu herritarrek Kontzejupe plataformak.



Oraingoa, Xantiri bertsoan egingo diote omenaldia lagunek.

ARTXIBOA



## Kiroldegiko tabernan geroago eta jende gehiago

Joan den otsailaren 21ean zabaldu zuen Marian Cubillo eskoriatzarrak kiroldegiko taberna. Marianek esan digu ez duela esperientziarik taberna kontuetan, baina oso gustura dabilela. Kiroldegiak duen ordutegian, hau da, 10:00etatik 21:00etara, izaten du Marianek taberna zabalik: "Geroago eta jende gehiago etortzen da tabernara. Kirola egin ondoren etortzen dira asko, baina kaletik kafe edo ardo bat hartzera etortzen direnak ere geroago eta gehiago dira", dio Marianek. Horra, hortaz, ogitarteko gozoak edo kafea hartzeko beste aukera bat gehiago herrian. /A.G.



## EDURNE



ESTETIKAN  
ESPEZIALIZATUTAKO  
ZENTRUA

Aranburuzabala 42  
Tel.: 943 71 51 54  
ESKORIATZA

Elektroterapia.

## ESKORIATZA



Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita  
ESKORIATZA

## OTZETA TABERNA • JATETXEA

- Eguneko menua
- Palter konbinatuak
- Bokadiluak
- Pintxuak



Aranburuzabala 7. Tel.: 943 71 51 90 ESKORIATZA

# Museoaren proiektuaren barruan txertatu dituzte Labidea eta Turismo Bulegoa

AINTZANE GARDOKI

Gaur, egubakoitza, inauguratuko dituzte Labidea denda berria eta Turismo Bulegoa. Hain zuzen ere, Aitziber Gorosabelek eta Amaia Olabek kudeatuko dituzte Gatz Museoa eta haren barruan txertatu dituzten Labidea denda eta Turismo Bulegoa.


Trikiti doinuekin eta kale animazioarekin inauguratuko dituzte gaur, egubakoitza, Labidea denda eta haren ondoan dagoen Turismo Bulegoa, 18:30ean.

Labidea dendak 35 m<sup>2</sup> ditu eta Turismo Bulegoak, 29 m<sup>2</sup>. Edozelan ere, inaugurazioa gaur izango den arren, datorren martitzenean, hau da, apirilaren 1ean, irekiko dituzte ateak. Astegunetan 09:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara egongo dira bulegoa eta denda zabalik eta zapatuetako eta domeketako ordutegia, berriz, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara bitartekoa izango da.

## KULTURA ETA TURISMOA ABIAPUNTU

Gatz Museoko proiektuaren barruan kokatu dituzte Aitziberrek eta Amaiak bai Labidea denda eta bai Turismo Bulegoaren kudeaketa: "Turismo Bulegoan Gatzagaren gaineko informazioa banatuko dugu, herria leku turistikoa gisa bultzatzea dugu-eta helburu. Momentu honetan txoko eta ibilbide ugari batzen dituen eskuorri ugari ditugu zabaltzeko. Debagoienean beste leku interesgarri asko dago ezagutu eta ikusteko. Beste herri batzuetako turismo bulegoekin harremana estutuko dugu, gure herria eta ibarra ezagutarazteko", esan digu Amaia Olabek.

*"Momentu honetan txoko eta ibilbide ugari batzen dituen eskuorri ugari ditugu zabaltzeko"*



Bisitariari, museoaz gain, beste elku batzuk ikusteko aukera emango zaio.



Amaiak eta Aitziberrek kudeatuko dituzte denda eta Turismo Bulegoa.

Gatz Museoari dagokionez, berriz, geroago eta bisitari gehiago jasotzen ditu: "Orain dela hiru bat urte hasi ginen bisitaldi gidatuak eskaintzen. Udan jende gehiago ibiltzen da, baina geroago eta bisitari gehiago ditugu. Edozelan ere, ahal dugun neurrian gure eskaintza hobetu behar dugu. Aurrerantzean bisitari partikularrei eta taldean datozenei, museoa bisitatzeaz gain, Dorleta Santutegia eta herria bisitatzeko aukera eskainiko diegu, besteak beste", esan digu Aitziberrek. Kultura eta turismoa bultzatu guran Labideak ere badu bere betebeharrak: "Lehenago ere izan dugu denda Gatzagan, baina oraingoan beste zerbait eskaini gura dugu", esan digu Amaiak.

*"Lehenago izan dugu denda, baina oraingoan beste zerbait eskaini gura dugu"*

## AITZIBER GOROSABEL/LABIDEAKO ETA INFORMAZIO BULEGOKO KUDEATZAILEA

*"Proiektu hau aurrera ateratzea erronka pertsonal moduan hartu dut"*

AINTZANE GARDOKI

Aitziber Gorosabelek eta Amaia Olabek kudeatuko dituzte gaur inauguratuko dituzten Labidea denda eta Turismo Bulegoa. Gu Aitziberrekin egon gara horretaz berbetan.

### Zer dela eta hartu duzu zure gain ardura hori?

Urte bi pasatu dira museoan lanean hasi nintzenetik, eta oso gustura ibili naiz. Herriari zerbait emango diogula pentsatzeak ere animatu nau. Dena dela, proiektu hau aurrera ateratzea erronka pertsonal

moduan hartu dut. Amaiak, 30 urte lanean ibili ondoren, dena utzi eta ilusioz hartu du proiektua. Hortaz, ilusioa eta lanerako gogoa ez zaizkigu falta.

### Kultura eta turismoa bultzatzea duzue helburu?

Herri honen geroa turismoan oinarrituta dago, nire iritziz. Gure nahia herria ezagutzera ematea da, jendea etor dadila herria, gure museo eta gure inguruak ezagutzera. Horri erantzuteko gertu gaude.

### Zer eskainiko du Labideak?

Esan dudan moduan, turismoari lotutako dena izango da, eta egun-



karia eta ogi egin berria edukitzeaz gain, edozein etxetan behar diren gauzak izango ditugu. Kafea eta pintxo ederrak ere eskainiko ditugu egunero. Eta umeek, orain ez bezala, litxarrerriak izango dituzte aukeran.

Horrez gainera, Jakion enpresako produktuak, Lur Lan enpresako produktuak eta artisautzako lanak ere izango ditugu salgai Labidean: zeramika, otarrak, bitxiak...

### Bisitariendako izango da, hortaz, Labidea?

Bisitariendako bakarririk ez, guk herritarrei ere eman gura diegu zerbaitua. Badakigu herritarrak ez dituela gurean egingo asteko erosketak, baina, bestalde, beste produktu batzuk erosteko aukera emango diegu, edo kafetxoa hartzeko aukera. Horrez gainera, herritarrek egiten dizkiguten eskaerei erantzuteko gertu gaude.

aroztegia  
**Leintz**

Aingeruguardako ibilbidea  
Tel.: 943 71 49 36  
ESKORIATZA (Gipuzkoa)


- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

## Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...  
gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21



**ASENSIO** jantzi denda  
**HAURRAK** umeendako arropa  
**LEINTZ ROSSI** mertzeria  
**MARI KARMEN** oinetakoak  
**PAGALDAI** opariak

UDABERRIRAKO ETA UDARAKO BEHAR DUZUNA

# GRUPO RKUZ

1950-2003

Zure etxea da




Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABALETA

